

Arratzua-Ubarrundiko EH Bilduko zinegotziek dimititu dute, Solariaren parkea ezin geldituta

- Hiru ordezkariak salatu dute «eskuak lotuta» daukatela udalaz gaindiko proiektuetan; tartean, Vitoria Solar 1 parke fotovoltaikoan.
- Hiruna zinegotzi dituzte EAJk, Goazen-ek eta EH Bilduk. Denek osatzen dute udal gobernua.

Eduarne Begiristain

GASTEIZ— Arratzua-Ubarrundiko (Araba) EH Bilduko hiru zinegotziek dimisioa eman dute, argudiatuta ezin izan dutela «geldiarazi» Eusko Jaurlaritzak eta Solaria enpresak bertan egin asmo duen eguzki parkearen proiektua. Txetxu Zengotitabengoak, Laura Sancho eta Javier Ruiz de Arkautek gutun publiko bat bidali dute udalerriko etxebizitzetara, erabaki hori hartzea eraman dituzten arrazoiak azaltzeko. Hala, gogorarazi dute 2023ko hauteskundeetara aurkeztu zirenean lehenetsun artean jarri zituztela gizarte zerbitzuak «hobetzea», etxebizitzetara politika, administrazio batzarretan parte hartzea eta, batez ere, trantsizio energetikoaren inguruko «ikuspegi berri» bat ezartzea.

Bide horretan, azpimarratu dutenez, proiektu asko daude udalerrien inguruan, eta horietako bat da Vitoria Solar 1. Instalazio fotovoltaiko horrek 49,99 megawattetako gehieneko potentzia izango du, eta 90.000 eguzki panel jarriko dituzte; Arabako Foru Aldundiaren oniritziaren zain dago egitasmoa. «EH Bildu ordezkatzeko dugu Arratzua-Ubarrundiko Udalean, baina hainbat herri plataformatan ere aktiboki parte hartzen dugu. Eta kalean eta erakundeetan lan egin dugu gure herriaren etorkizuna baldintzatzen duen proiektu hau geldiarazteko», adierazi dute. Haatik, nabarmendu dute eguzki parkearen makroproiektua ezin izan dutela «geldiarazi», eta horrek eragin dien «frustrazioa-

gatik» erabaki dutela dimisioa ematea.

Azaldu dutenez, «hainbat eta hainbat ekinaldi eta alegazio» aurkeztu dituzte erakundeetan, baina salatu dute «eskuak lotuta» daukatela udalaz gaindiko erakundeek sustatutako proiektuei dagokienez, baita Solariak bezala errentagarritasun ekonomikoa baino bilatzen ez duten enpresei dagokienez ere. Eusko Jaurlaritza ere egin dute horren erantzule, proiektuaren parte delako, «epaile» gisa.

«Indarririk» gabe

Bederatzi zinegotzi dauzka Arratzua-Ubarrundiko Udalak. 2023ko maiatzeko hauteskundeetan, hiruna zinegotzi lotu zituzten EAJk, Goazen-ek eta EH Bilduk. Blanca Antepara da alkatea, EAJkoa, baina hiru alderdiek osatzen dute udal gobernua.

EH Bilduko hiru zinegotziek oharrean adierazi dutenez, egoera horrek «frustrazioa» eraman ditu: «Uste dugu Arratzua-Ubarrundiko Udalean proiektu hau geldiarazteko ekarpen gutxi egin dezakegula». Gogorarazi dutenez, Solariak eta EEE Energiaren Euskal Erakundeak sustatutako Vitoria Solar 1 proiektua ez da udalerrian egin asmo duten bakarra; are, energia berriztagarriekin lotutako beste hamabost proiektu martxan jarri nahi dituztela jakinarazi dute.

Hori horrela, EH Bilduko zinegotziek azpimarratu dute ez dutela «indar» nahikorik legealdia amaitzeko. «Gauzak ezin dira horrela egin», ohararazi dute oharrean. Zinegotzi akta uzte-




«Uste dugu Arratzua-Ubarrundiko Udalean proiektu hau geldiarazteko ekarpen gutxi egin dezakegula»

TXETXU ZENGOTITABENGOA, LAURA SANCHO ETA JAVIER RUIZ DE ARKAUTE
Dimisioa eman duten zinegotziak

ko erabakia hartuz, bistan jarri nahi izan dute ezinbestekoa dela erakundeak elkarlanean aritzea, proiektuak «inposatu gabe», eta bizilagunei ere entzunda. Haien iritziz, energiaren «benetako demokratizaziorantz» aurrera egin ahal izateko, «modu parte hartzailea» sustatu behar da, eta kontrol publikoari eutsi.

Hiru zinegotziek atzo aurkeztu zuten dimisioa udalean, eta, aurrerantzean, EH Bilduren zerrendetan aurkeztu ziren hurrengo hirurek hartuko dute euren lekua— Andrea Hierro, Jon Agirre eta Belen Perez dira—.

Arratzua-Ubarrundikoa ez da azkenaldian energia berriztagarriaren inguruko proiektuekin izandako polemika bakarra. Urtarrilean, Oiongo Udalak—EH



Bildukoa da alkatea— bide eman zion Labrazako parke eolikoari, 2005etik Araban eraikiko den lehenari. «Behartuta» hartu zuten proiektua babestu ez arren legez zegoela derrigortuta egitasmoa onestera, eraikitzen hasteko behar diren baldintza guztiak betetzen dituelako proiektuak.

Erabaki hark haserrearazi egin zituen herritar batzuk eta Arabako Errioxa Bizirik talde ekologikista. Talde horren ustez, «kontraesana» da batetik proiektu horren alde egitea eta bestetik lurraldea eta natur ondarea defendatzea.

«Iparra galtzea»

Proiektu Honi Ez plataformak komunikatu bat zabaldu du Arratzua-Ubarrundiko EH Bilduren aurka egiteko. «Bulegoko politika egin eta iparra galtzea» egotzi dio taldeak koalizioari. Otsailaren 26an udaleko osoko bilkuran politikarien eta herritarren arteko «dibortzioa» gertatu zela salatu du plataformak: izan ere, egun horretan onartu behar zuten Arabako Foru Aldundiari eskatzea Vitoria-Solar 1 proiektua ez onartzeko, baina bozketa egunean EH Bilduko hiru zinegotziak ez ziren agertu, nahiz eta aurrez mozioa babestuko zutela esan. «Ulertu behar dugu EH Bilduren zuzendaritza politikoak bere zinegotzien sentimenduari eta konpromisoari buruzko bere irizpidea inposatu nahi zuela, eta aurretik batzordean babestu zuten mozioaren alde bozkatzearagozten saiatu. Egoera kafkarrak», adierazi dute. ●


↑ 90.000 panel jarri nahiko dituzte Vitoria Solar 1 instalazioan.

IDOIA ZABALETA / FOKU

Iñaut Matauko Rada

Azken urteetan gero eta eskaera gehiago egiten dira parke eolikoak eta fotovoltaikoak egiteko, batez ere haietarako dauden diru laguntzengatik. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, XXI. mendearen hasieran hasi ziren ugaritzen energia berriztagarria elkoizteko azpiegitura horiek, baina, ordutik hona, ez dira halakoak eraikitze eskaera asko egon, pandemia eta energia krisia iritsi arte. Esaterako, hiru lurralde horietan bost parke eoliko daude orain, eta denak mende hasieran eraiki zituzten. Dena den, laster bi batuko dira zerrendara, Labrazako eta Azazetako parke eolikoak eraikitze baimena baitute jada. Beste hainbat, aldiz, itxaron zerrendan daude, gehienak ingurumen eraginari buruzko baimenaren zain.

Eguzki panelen eta haize erroten parkeen tramitazioak asko luzatzen ari dira oroko-



Lege uholde batean galduta

Tramitazio bide ezberdina dute parke eolikoek eta fotovoltaikoek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta interesdun asko galdu egiten dira prozeduren urratsetan.

rrean, eta eolikoan bereziki, bultzatzaileek urrats asko egin behar baitituzte eraikitze baimena jasotzeko. Bide burokratiko luze eta nekez hori are katramilatsua da elkarre ekologistentzat, sindikatuentzat, entitate txikientzat eta norbanakoentzat, halakoek ez baitute abokatu eta aholkulari talde handien laguntzarik, enpresa bultzatzaileek duten moduan. Andres Illana Ekologistak Martxan-eko kidearen arabera, jende asko galduta sentitzen da, baita udal batzuen administrazio batzarretako kideak ere, eta nabarmendu du prozesu berruzko informazioak gardenagoa izan beharko lukeela; hori dela eta, gida moduko bat galdegin du, informazio hori eskuragarriagoa izan dadin.

Horrez gain, illanak salatu duenez, orain ere zaila da tramitazioan dauden proiektu guztiei buruzko informazioa lortzea: «EH Bilduk Eusko Legebiltzarrean hala eskatuta, duela gutxi lortu da 100 proiektu berriztagarriren baino gehiagoren informazioa izatea, baina, bestela, banaka-banaka joan behar duzu informazio bila». Nafarroako eta

Kataluniako gobernuek egiten dutena jarri du eredu gisa, mapa topografiko interaktiboak baitituzte, eginda, egiten eta tramitatzan ari diren parke guztiak ikusteko.

Horrelako zenbait proiektuk, baina, eman dute zeresana azkenaldian eta ekarri dute ondorioak: esaterako, Arratzua-Ubarandiko (Araba) EH Bilduko hiru zinegotzien dimisioa eragin dute, eta otsalean Oiongo (Araba) Udalak Labrazako parke eolikoari «administrazio aginduz» emandako baieztokak sortu du harrabotsik. Horrek agerian utzi du tokiko gobernuek gai horiei buruz duten eskumen falta. Baina, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, zer-nolako bidea egin behar du haize erroten edo eguzki panelen proiektu batek erabat gauzatu arte? Zer leku dute bide horretan tokiko entitateek, elkarre ekologistek eta bestelakoek beren iritzia plazaratzeko? Eta proiektuan aldaketak proposatzeko?

50 megawattteko langa

Parke eolikoan eta fotovoltaikoan tramitazioak ezberdinak dira, baina, enpresa baten proiektu baten potentzia instalatuak 50 MW gainditzen baditu, zuzenean Espainiako administrazioak tramitatu behar du. Illanak azaldu duenez, hortxe dute askotan lehen arazoa, enpresa batzuek hori baliatzen dutelako parke handi bat hainbat zaitan banatu eta Madrilen tramitatzeari izkin egiteko. Haren ustez, horixe gertatu da Arabako Azazetako eta Laminoriako parke eolikoekin, elkarren ondoan baitaude eta promotore bera baitute: Aixendar —Iberdrolak eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko Energiaren Euskal Erakundeak sortutako berriztagarrien bultzatzailea—. Illanak esan du hori lege iruzurra dela, eta are larriagoa dela bultzatzaileetako bat Eusko Jaurlaritzaren entitate bat izanik.

Lehiakide bila

Parke eolikoak dagokien, maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak zehazten du administrazio baimenaren prozedura nola egin. Enpresa baten eskaria EAeko Aldizkari Ofizialean publikatzen denean, beste enpresaren batek instalazio hori egiteko asmoa balu, hogeie eguneko epea du bere eskaria aurkezteko, eta, txostenak jaso ostean, Energiaren Zuzendaritzak hilabete epea du bietatik bat aukeratzeko. Hala ere, illanak azaldu duenaren arabera, normalean enpresak besteen asmoak errespetatzen dituzte, eta ez dute beste proiekturik aurkezten.

Ingurumen eraginari buruzko txostenak

Behin epe hori pasata, enpresak sei hilabete ditu bere proiektuak ingurumenean izango duen eraginari buruzko txosten bat egiteko, eta eraikuntza eta esplotazio faseak kontuan hartu behar ditu. Horren ostean, herritarren eskura jartzeko da txostena, eta hilabete dago proiektuari alegazioak aurkezteko. Illanak azaldu duenez, tarte hori dute elkarre ekologistek, udalek, sindikatuek eta norbanakoek beren iritzia alegazio forman aurkezteko.

Hala ere, gehiago luzatu ohi dira prozesuak. Izan ere, enpresak epe hori luzatzeko aukera dute, udalei eta tokiko administrazioei eremuari buruzko informazio gehiago eskatu, eta ostera txostenean informazio hori kontuan hartzeko. Illanak gogora-

razi duenez, Cantoblanko parke eolikoaren kasuan hori bera gertatu zen; Eusko Jaurlaritzak, baina, proiektua atzera botu zuen. Baliteke enpresak txosten egoki bat egiteko denbora edo nahiko baliabide ez izatea. Orduan, informazio gehiago eskatzen dute txostena osatu ahal izateko.

Alegazio batzuen ondorioz, baliteke Eusko Jaurlaritzak gai jakin batzuei buruz informazio gehiago eskatzea enpresari, eta behin baino gehiagotan, gainera. Esaterako, Laminoriako parke eolikoaren kasuan, saguzarrei buruzko txosten gehigarri bat eskatu zioten Aixendarri. Azkenean, joan den astean jakin zen Eusko Jaurlaritzak ez ziola oniritzik ematen ingurumen eraginari buruzko txostenari, eta, beraz, bertan behera geratzen zela.

Baieztokoa edo ezeztokoa

Behin enpresak emandako guztia eta alegazioak aztertuta, ingurumen eraginari buruzko txostenari oniritzia eman behar dio Jaurlaritzak. Kontrakoa bada, enpresak helegitea jar dezake, baina, illanaren ustez, normalean ez da gertatzen.

Baina, Jaurlaritzaren oniritzia jasota, aurrera egiten du proiektuak, eta parkeek eragina izango duten udalek Plan Bereziak onartu behar dituzte lanen fasea ondo burutu dadin. Illanak azaldu duenez, plan horiek «nahitaez» onartu behar dituzte; hala egin ezean, foru aldundietara doa haiek onartu dezaten. Hori bera esan zuen Oiongo alkateak: «agindu administrazioz» onartu zutela. ●